

XV. JAGON JARDUNALDIAK.

Aurkezpena

Egun on eta ongi etorri Euskaltzaindiaren XV. Jagon Jardunaldietara .

Euskaltzaindiak, bigarren urtez, Unesco etxearekin batean antolatu duen jardunaldi honetan *gazteak, aisialdia eta euskara* hartu dugu gaitzat.

Gure gizartea etengabe aldatzen ari da. Gero eta gazte gehiago dugu euskara eskolaren bidez ikasi dutenak, ikasketak euskaraz egin dituztenak; komunikazio modu berriak sortu zaizkigu; kanpotik jende asko etorri da gure herrira bakoitza bere kultura, ohitura eta hizkuntzarekin; euskaraz bizi izan diren herriak populazioz husten ari dira eta jende hau hirigune erdaldunetan murgiltzen ari da, euskaraz norekin mintzatu ez dakiela; aisialdiak inoiz ez bezalako garrantzia hartu du egungo bizimoduan eta arlo honetan euskarak toki ttikia du eta guzti honen inguruan hausnartu beharra dugu. Orain arte euskara sustatzeko hartutako bideak aski eta egokiak diren, zein bitarteko jarri behar ditugun oraingo bizimodura moldatzeko. Gazteak gogoeta honetan ezinbestekoak ditugu, hauek baitira edozein aldaketetara lasterren egokitzen direnak eta dinamikoenak. Gazteen iritzi, ikuspegi, asmo, ekimen eta bizipenak ezagutzeko aukera izanen dugu gaurkoan.

Haur, gazte, heldu eta zahar, elkarrekin, **orain** ari gara **geroa** egiten, **orain**, datorkigun gizartean euskaraz bizitzeko modua eraikitzen. Txepetxen, Sanchez Carrionen, liburu baten izenburua gogoan, guztiok ari gara gure iraganarendako etorkizuna bermatzen.

Gaur entzuten ditugunak gogoetarako ezin baliagarriagoak izanen ditugulakoan egun ona izan dezagula.

Sagrario Aleman, Sustapen batzordeko idazkaria
2010-11-19